# HEZKUNTZA

# 1992/1993 Urteetan hezkuntza arlorako Euskal Herria Euskaraz Argitaratutako aldizkariak

Jaione Apalategi

Orohar, hezkuntz argitalpenak bi multzotan bana ditzazkegu:

## 1. Hezkuntza aldizkariak zuzenki

Bi urte horietan zehar, hezkuntz aldizkarietan azaldu den guztia ezagutzea ezinbestekoa dela deritzot, alde batetik euskeraz egiten hari den ahalagina delako eta bestetik, maila ona lortzen ari direlako:

### 1.1. Zientifikoak

TANTAK hezkuntz aldizkaria, Unibertsitate ikuspegitik landu eta jakin daitezken gaiak urratzen ditu. Hezkuntza eta Euskal Unibertsitatearen harteko lotura adierazi nahirik, 1992 eta 1993 urteetan zehar aurkezten dituzten lanak hezkuntzaren arlo ezberdinaz dihardute.

JAKINGARRIAK dokumentazio zentruak argitaratu dituen aleetan, euskal hezkuntzaren ahaleginetan dabiltzaten ikastetxe/irakasle/teknikalari... abarentzat zenbait gaien inguruan argitaratu diren liburu edo lanen berri kaleratzen du. Guztiak, beraz, ezagutu beharrekoak.

### 1.2. Gai orokorrak

ISILIK pedagogi aldizkariak argitaratutako zenbakiak, Euskal Herrian hezkuntza inguruan, pilpilean, dauden gaiak osatzen dituzte, beraz harretaz garraitu beharrekoak direla uste dugu:

1992 urtea -14 zbk. “Murgiltze bidean Euskal Herrian eta Kanadan”.
-15 zbk. “Soziolinguistika”.
-16 zbk. “Eskola publikoa eztabaidan”.
1993 urtea -17/18 zbkak. “Eleaniztasuna”.

### 1.3. Albiskariak

IKASTOLA aldizkariaren “berri paper” erako argitalpenak berriz, euskal ikastetxe inguru honen hezkuntzaren berriak jasotzen apraposa da.

UNESKOren aldizkaria/berrikaria?, 1992/93 urteetan, 84.zbktik 91.rarte euskaraz argitaratutako nazioarteko hezkuntz berriak argitaratzen ditu.

## 2. Hezkuntzarekin zerikusia duten gaien argitalpenak

### 2.1. Irakaskuntzarako

ZUTABE euskalduntze alfabetatze aldizkaria. Bi urte hauetan zehar, 28.tik 33.zbkraino, hizkuntza eta hezkuntzarako balio duten "gai orokorrez" mintzo da.

### 2.2. Hezkuntza eta soziolinguistika

Soziolinguistika BAT aldizkariak guk diogun ekarpenerako, 6-7/8-9-10 eta 11 .zbketan kaleratu dituen zenbait tan oso interes handikoak dira hezkuntzarako.

### 2.3. Hezkuntza eta gizarte zientziak

UZTARO giza eta gizarte zientzien aldizkaria:

1992 urtean -4 zbkan "Euskararen kulturaren geroa Europa berriaren tenorean".
-6 zbkan "Euskal intelektualen bidegurutzea" eta "Hezkuntzaren ebaluaketaro aurrebaldintzak".
1993 urtean -7/8 zbkak. "gai orokorrak".
-9 zbkan "Euskararen batasunaz".

### 2.4. Hezkuntza eta kultura gaiak

JAKIN aldizkaria, 1992ko 73.zbkan eta 1993ko 79.zbkan "Euskal kultura eta Euskal liburugintza" osatzen dituzten gaiak, oso adierazgarriak dira euskal hezkuntzaren egitasmoaren jarraipenerako.

ELHUYAR kultur taldea:

1992 urtean, 56 zbk. "Haurrak eta zientzia".

1993 urtean, 67-68-69-70-71-72-75-zbkietan "Eskolatik eskolara nazioarteko proiektua Euskal Herrian" inguruko zenbait gaien berri ematen digu: "Populazioa", "Baliabideak", "Etxeak eta babeslekuak", "Etxeak eta bizilekuak", "Baliagarria eta alferrikakoa", "Tarta mundiala", "lrakaskuntzarako teknologi berriak" etbar.

ARGIA aldizkaria euskara/hezkuntza/eskola eta kulturazko gaiaz harituko da, besteak beste zenbaki hauetan:

1992, 1306 zbkan. (urria): "Gizarteak, orohar, ahaztu egin ditu kultur adierazpen herrikoiak".

1993, 1439 zbk. (ekaina): "Hezkuntza: Ikastolak iparraren bila".
1440 zbk. (ekaina): "Euskal kultur erakundeak bere lanak mugatzen hasi beharko du".
1448 zbk. (iraila): "Hau marka: berriro eskolara".
1458 zbk. (azaroa): "Kultur aberts baten jabe garela kontzientzia piztu behar dugu".
1459 zbk. (azaroa): "Euskararen estatusa..."